

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 127/2020 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-Sarea arautzen duena.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak adierazten du foru-administrazioek sustatuko dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika eraginkorrak abiaraztea zeinek bere lurralde historikoan.

Haren 6.h) artikuluan xedatzen denez, foru-administrazioei hau dagokie: «Sustapen-neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki-erakundeek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko».

Ildo berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoan berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko beharrezko diren baldintzak bermatzea.

Horretarako, 4/2018 Foru Arauak, lehenik, hau xedatzen du, 6. artikuluan (Bizkaiko Foru Aldundiaren antolaketa): «(...) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sarea koordinatuko du.» Gainera, 8. artikuluan xehatzen diren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren eginkizunen artean, hau jasotzen da j) letran: «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako toki-politikak garatzeko sustapena egitea eta aholku zein laguntza ematea, udalerrri txikiei bereziki.»; eta beste hau, k) letran: «Bizkaiko udaletako berdintasun teknikarien sare-lana sortu eta indartzea».

Hortik abiatuta, 17. artikuluan beren-beregi jasotzen da Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sarea sortzea, «Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko udalerrien eta, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten udalez gaidiko erakundeen artean lana eta koordinazioa egiteko gune gisa».

Artikulu horren 3. puntuan ezartzen da Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sarearen osaera, eginkizunak, antolamendua eta funtzionamendu-araubidea zehazteko prozesu parte-hartzailea jarriko dela abian, non parte hartuko duten udaletako zein udalez gaidiko erakundeetako ordezkari politikoeak eta berdintasun-teknikariek.

Agindu hori betetzeko, Berdintasuneko Zuzendaritzak prozesu parte-hartzaile bat abiarazi zuen, 2018ko azaroan, eta informazio, iritzi eta orientazioak jasotzeko zenbait tresna eta metodologiaren erabilera ezarri. Prozesu horretan, elkarrizketa batzuk modu sakonean burutu ziren, eta kontraste-bilerak egin ziren Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri batzuetako teknikariek eta politikariek. Haietan, udalerrietako bakoitzaren beharrezkoetatik eta haien dibertsitatetik abiatuta, informazio baliotsua eman zuten, definitu ahal izateko sarearen egitura, lan-dinamikak eta sareak heldu nahi ziren edukiak. Prozesu parte-hartzaile guztian zehar, kontuan hartu ziren lurralde osoko ordezkagarritasuna eta emakume eta gizonen berdintasunaren arloko udal-politiken errealitate desberdinak. Bereziki, aintzat hartu zen Bizkaiko udalerrri txikien errealitatea, 5.000 biztanletik beherakoena; udalerrri horiekin bazegoen lehendik aurretiazko esperientzia bat, Berdintasunerako Zuzendaritzan, Berdinbidean Bizkaia programaren barruan.

Azkenik, berdintasun-arloko eta beste arlo batzuetako beste lurralde-sare batzuen egitura eta funtzionamendua aztertu ziren.

Arloko eskumenari dagokionez, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 37.3 artikuluan zein Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko



azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).1 artikuluan, lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen zaie arlo honetako eskumen eskusiboa, haietako bakoitzak bere araubide juridiko pribatiboaren arabera erabiliko duena bere foru-organoen antolamendu, araubide eta funtzionamenduaren arloan.

Foru Dekretu hau idatzi denean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, Foru Dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori otsailaren 18ko 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Foru Dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Hori guztia dela bide, eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17, 39.k) eta 64.3. artikuluek emandako eskumenak erabiliz, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko abenduaren 22ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Izaera eta atxikipena

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeekin emakume eta gizonen berdintasunaren eremuan lan egiteko eta politikak koordinatzeko espazio gisa arautzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sarea.

2. artikulua.— Xedea

1. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sarearen xedea da Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko udalerrien eta, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten udalez gaindiko erakundeen artean lan egiteko eta koordinatzeko espazioa gisa eratzea, berdintasun-arloko politikak Bizkaiko Lurralde Historikoan bultzatzeko.

2. Haren helburua da emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan hausnarketarako, elkarrizketarako eta koordinaziorako espazio komun bat eskaintzea. Berdintasun-politikak azpimarratu eta sendotu nahi ditu, toki-mailan, eta udaletako eta, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten udalez gaindiko erakundeetako berdintasun-atalen eginkizuna indartu, kontuan hartuta Bizkaiko Lurralde Historikoaren errealitatea mota askotakoa dela.

3. artikulua.— Lurralde-sarearen osaera

Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sarea osatuko dute Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak ezarritako konpromisoak beren gain hartzen dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek, Sarearen eginkizunak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

Konpromiso horiek aldizka eguneratuko dira eta, Lurralde-sareko Kontseiluak proposatuta, Lurralde-sareko Batzarrean onetsiko dira.

4. artikulua.— Lurralde-sarean sartzea

1. Udalerriek Lurralde-sarean onartuak izateko eskaera bat aurkeztu beharko diote, idatziz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari; horrez gainera, betekizun hauek bete behar dituzte:

- a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak prestatutako eskaera-orrria aurkeztu behar dute, zeina udaleko osoko bilkurak onartu behar baitu, eta, hala badagokio, eskatutako dokumentazioa erantsi beharko dute.



- b) Bete beharreko konpromisoen agiri bat sinatzea, ziurtatzeko behar bezala jardungo dela, eta modu aktiboan parte hartuko, Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Lurralde Sarean.
 - c) Lurralde-sarearen esparruan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin hitz egiteko ordezkari politiko bat eta haren ordezkoa izendatzea, eta ordezkari tekniko bat izendatzea, ahal dela berdintasun-teknikaria.
2. Aurreko apartatuaren c) letran adierazitako ordezkariak agintaldi bakoitzean behin izendatuko dira, bermatu ahal izateko sarearen lanaren jarraipena eta sareko organoen funtzionamenduaren egonkortasuna; izendapenetan aldaketarik egonez gero, haren berri eman beharko zaio sareko batzarreko idazkariari, eta beti motibatuta beharko da.

5. artikulua. — Lurralde-sareko kide izateari uztea

1. Lurralde-sareko kide izateari utziko diote 4. artikuluan aipatutako udalerriek edo erakundeek, baldin eta egoera hauetako batean badaude:
 - a) Beren borondatez hala erabaki badute eta sareko idazkariari jakinarazten badiote.
 - b) Ez badituzte betetzen parte hartzeko gutxieneko irizpideak, sarean onartuak izateko eskabidearekin batera aurkeztu duten konpromisoen agirian jasotakoak.
 - c) Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren kontrako politikak, ekimenak edo jarduerak sustatzen badituzte.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak lanpostutik kentzeko prozedura-proposamen bat egingo du, eta Lurralde-sareko Kontseiluak onartuko du.
3. Lurralde-sareko kide izateari uzteak ez du eragotziko berriro ere sarean sartzeko aukera, baina, horretarako, desagertu egin beharko dira kide izateari uztea eragin zuten arrazoiak.

6. artikulua. — Lurralde-sarearen egitura

Lurralde-sarea organo hauek osatzen dute:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoak.
- b) Lurralde-sareko Batzarrak.
- c) Lurralde-sareko Kontseiluak.

7. artikulua. — Berdintasunerako Organoa

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak Lurralde-sarea koordinatzeko ardura du, eta helburu hauek bete nahi ditu:
 - a) Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko udalerrien eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten udalez gaindiko erakundeen elkarrizketarako organoa izatea.
 - b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko toki-politikak sustatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzea.
 - c) Lankidetzan aritzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan toki-erakundeen partaidetza duten Bizkaiko beste lan-espazio batzuekin.
 - d) Udalerrietako berdintasun-teknikarien arteko sarea sustatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko toki-politikak hobeto kudeatzeko.
 - e) Bizkaian emakumeen eta gizonen berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko neurriak sustatzea.
 - f) Berdintasun-alorrean lurralde osoan berdinak diren premiei erantzuteko ekintza bateratuak planifikatu eta betearaztea.
 - g) Estandar eta adierazle komunak dituzten metodologiak, datu-baseen eta informazioaren erabilera ahalbidetzea. Garatutako planen zein neurrien azterketarako eta ebaluaziorako egitura komuna sustatzea.



- h) Udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan lan egiten duten kolektibo feministekin eta erakunde sozialekin parte hartzeko kanal iraunkorrak ezartzea.
 - i) Lurralde-sarean sartzeari eskatzen duten udalek sarean sartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.
 - j) Sarearen ardatz estrategikoak egin, garatu eta ebaluatzea agintaldi bakoitzean.
2. Helburu horiek betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak bitarteko materialak eta ekonomikoak eta giza baliabideak izango ditu.

8. artikulua. — Lurralde-sareko Batzarra

1. Batzarra informazioa emateko eta lurralde-sarearen lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko organoa da; oro bat, toki-mailan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan sustapena egiteko eta etengabeko hobekuntzarako espazioa da. Kide hauek osatuko dute:

- a) Batzarreko burua; kargua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa atxikita dagoen saileko diputatuak beteko du.
- b) Buruordea; alkatea izango da.
- c) Idazkaria; berdintasunerako organoko zuzendaria izango da, edo hark eskuordetutako pertsona, eta berdintasun-eremuan espezializatutako Foru Aldundiko teknikarien laguntza izan ahal izango du.
- d) Sareko kide diren udalerrietako alkateak; ordezkariak berdintasun-arloko zinegotzien esku utzi ahal izango dute.

2. Lurralde-sareko Batzarrera emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituak joan ahal izango dira, Lurralde-sareko buruak beren-beregi gonbidaturik, aztertu beharreko zerrendako gaiekin lotutako aholkularitza edo laguntza eskaintzeko.

3. Lurralde-sareko Batzarra urtean behin bilduko da, gutxienez.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak, bilera-lekuetarako irisgarritasun unibertsala ez ezik, honako hauek bermatuko ditu: dibertsitate funtzionala edo organikoa duten pertsonen parte hartu ahal izateko eta aurretiaz identifikatutako bestelako beharrezanez erantzun ahal izateko aurretik eskatzen diren baliabideak.

9. artikulua. — Lurralde-sarearen Kudeatzailearen eginkizunak

Lurralde-sareko Batzarrak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Lurralde-sarearen ardatz estrategikoak onartzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoak agintaldi bakoitzaren hasieran proposatutakoak, bai eta Lurralde-sarearen helburuak erdiesteko egokitzat jotzen diren lantaldeak eta urteko lan-planak ere.
- b) Lurralde-sarearen kontseiluko kideak gehiengo soilez onartzea.
- c) Udalerriek, sarean sartu ahal izateko, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera bete behar dituzten konpromisoak onartzea.
- d) Lurralde-sareak behar bezala funtzionatzen duela bermatzea.
- e) Toki-mailan ezagutza trukatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esperientziak eta ekimenak partekatzeko espazioa izatea, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen errealitate anitza kontuan hartuz eta udalerritik txikiak arreta berezia eskainiz.
- f) Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiarekin batera, Bizkaiko udalerrietan informazioaren bilketa sistematikorako jarraibide eta adierazle partekatuak adostea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloetan.

**10. artikulua.— Lurralde-sareko Batzarraren burua**

1. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sareko Batzarraren burua Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa atxikita dagoen saileko diputatua izango da, edo hark eskuordetutako pertsona.
2. Lurralde-sareko buruak eginkizun hauek izango ditu:
 - a) Lurralde-sareko Batzarraren bilkurak zuzentzea eta moderatzea, edo eginkizunok betetzeko pertsona bat izendatzea.
 - b) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituak gonbidatzea Batzarraren bilkuretara eta/edo adituoi laguntza eskatzea, aztergaiak direla-eta beharrezkoa denean.
 - c) Lurralde-sarearen proposamenak eta ondorioak Bizkaiko Foru Aldundiaren beste sail batzuei bideratzea eta, hala badagokio, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten beste erakunde batzuei ere bai.
 - d) Lurralde-sarearen helburuak eta eginkizunak eta bertan parte hartzen duten udalerrien konpromisoak betetzen direla bermatzea.

11. artikulua.— Lurralde-sareko Batzarraren buruordea

1. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde-sareko Batzarraren buruordea sareko udalerrri bateko alkate bat izango da, eta Lurralde-sareko Batzarraren aukeratuko da, Lurralde-sareko Kontseiluko kideen artean.
2. Lurralde-sareko Batzarraren buruordeak eginkizun hauek izango ditu:
 - a) Burua ordezte, hala dagokionean.
 - b) Lurralde-sareko Batzarraren eta Kontseiluaren bilkuretara joatea.

12. artikulua.— Lurralde-sareko Batzarraren idazkaria

1. Lurralde-sareko Batzarraren idazkaria Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko zuzendaria izango da, edo hark eskuordetutako pertsona.
2. Lurralde-sareko Batzarraren idazkariak eginkizun hauek izango ditu:
 - a) Lurralde-sarean sartzeko eskabideak jaso eta berrikustea, eta, saretik udalerrien bat irteten bada, horren berri ematea.
 - b) Lurralde-sareko Batzarraren bilkuretarako gai-zerrenda prestatzea eta deialdiak egitea, Lurralde-sareko buruarekin batera; eta bilkura-aktak egitea.
 - c) Karguagatik zuzentzen dizkioten jakinarazpenak, zuzenketak, datu-eskaerak edo bestelako dokumentuak jasotzea, eta haiei erantzutea —informazioa denean— edo beste sail edo erakunde batzuei bidaltzea, hala behar denean.
 - d) Egunean edukitzea Lurralde-sarean parte hartzen duten udalerrien erregistroa, bai eta udalerriotako ordezkari politiko zein teknikoena ere.
 - e) Lurralde-sarearen jarduketan legezketasun formala eta materiala zaintzea, haren jarduketak ziurtatzea, eta eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedura eta erregelak errespetatzen direla bermatzea.
 - f) Urteko lan-planen proposamenak egitea eta koordinatzea.
 - g) Sarearen funtzionamenduaren ondoriozko lan teknikoa koordinatu eta zuzentzea.
 - h) Lankidetzeta eta laguntza eskaintzea Bizkaiko Foru Aldundiko teknikarien bidez edo beste aditu batzuen bidez, landu beharreko gaiak hala eskatzen dietenean, bai lantaldeei bai berdintasuneko teknikariei.
 - i) Aginduko zaizkion bestelako eginkizunak, sarearen funtzionamendu egokirako beharrezkoak badira.

**13. artikulua.— Lurralde-sareko Kontseilua**

1. Lurralde-sareko Kontseilua Foru-administrazioaren eta toki-administrazioen arteko etengabeko koordinaziorako organoa da, lanarekin loturik sustapena, jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egiten dituena.

2. Hona Lurralde-sareko Kontseiluak izango duen osaera:

- a) *Batzordeko burua*: Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko zuzendaria.
- b) *Kontseiluko kideak*: Udalerrietako 7 alkate, zeinek beren ordezkariak eskuordetu ahalko dieten emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten zinegotzietan. Izendapena egiteko, aintzat edukiko da udalerrien aniztasuna eta kontuan hartuko da haien esperientzia eta nolako garapena izan duten haien berdintasun-politikek; bereziki, gogoan hartuko da Bizkaiko udalerritxikien errealitatea, eta Batzarrean onartuko da izendapena.
- c) *Idazkaritza*: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko teknikari bat.

3. Lurralde-sareko Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Berdintasun-arloko politiken sustapena modu koordinatuan bultzatzea toki-mailan, jarduketa partekatuko irizpideak adostuz, eta lurralde-programak eta -ekimenak bultzatzea, kontuan hartuta udalerritxiki mota askotakoak direla eta, bereziki, udalerritxikien errealitatea aintzat hartuta.
- b) Udalerritxiki, Lurralde-sarean sartu ahal izateko, 3. artikuluan ezarritakoaren arabera bete behar dituzten konpromisoak proposatzea Lurralde-sareko Batzarriari.
- c) Lurralde-sareko urteko lan-planak ezartzea eta horien jarraipena egitea.
- d) Berdintasuneko teknikariek eta lantaldeek proposatutako neurriak, ekimenak eta programak aztertzea eta haien berri ematea Lurralde-sareko Batzarriari; eta, hala badagokio, halakoak udalerritxiki bultzatzea eta ezartzea.
- e) Bizkaiko Lurralde Historikoan berdintasun-politikak hobetzeko beharrezkotzat eta positibotzat jotzen diren neurriak eta ekintzak proposatzea.
- f) Agintzen dioten beste edozein eginkizun.

4. Lurralde-sareko Kontseilua urtean hiru aldiz bilduko da, gutxienez, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa arduratuko da bileren deialdia egin, gai-zerrenda prestatu eta bilera-aktak egiteaz.

5. Kontseiluko kideen agintaldiaren iraupena bi urtekoa izango da, eta bi urtez luzatu ahal izango da, agintaldiaren hasierarekin batera. Kontseiluko kideen izendapena agintaldiko ardatz estrategikoak onartzen direnean onetsiko da.

14. artikulua.— Lan-espazioa berdintasunaren arloko teknikariek

1. Berdintasunerako Organok elkarrekin eta modu koordinatuan lan egiteko espazio bat sortzea sustatuko du; Lurralde-sarea osatzen duten udalerritxiki berdintasun-teknikariek osatuko dute espazio hori, eta, hala badagokio, berdintasun arloan eskumena duten udalez gaindiko erakundeetakoek.

2. Lurralde-sarea osatzen duten udalerritxiki berdintasun-teknikariek aldizkako lan-saioak eta bilerak egingo dira, eta, hala badagokio, berdintasun arloan eskumena duten udalez gaindiko erakundeetakoekin ere bai. Hauek izango dira helburuak:

- a) Toki-mailan emakumeen eta gizonen artean ezagutza trukatzeko, hausnarketa-rako eta esperientziak eta ekimenak modu bateratuan eraikitzeke espazio teknikoak izatea.
- b) Udalen administrazio-jarduera egokitzeko neurriak garatzea eta proposatzea, berdintasunaren ikuspegia integratzeko ikuspuntu intersektional batetik; bai eta genero-ikuspegia udal-politika guztietan integratzeko neurriak ere.
- c) Identifikatzea udalerritxiki esku hartzeko zer beharizan eta lehentasun tekniko dauden udalerritxiki zuzendutako berdintasun-arloko foru-programak eta -zerbitzuak diseinatzeke.



- d) Toki-eremuan berdintasunaren arloko ekintzak eta programak garatzeko orduan koordinazioa eta jarduketa-irizpide bateratuak bultzatzea, programak, materialak eta/edo gidak —besteak beste— trukatzuz edo elkarrekin prestatuz.
3. Lan horren berri emango zaie Lurralde-sareko Batzarrari eta Kontseiluari.

15. artikulua.— Lantaldeak

1. Berdintasuneko teknikariekin koordinatutako lanaz gain, lantalde puntual edo iraunkorrak sortuko dira Lurralde-sareko lan-planak eta ardatz estrategikoak betetzeko.
2. Hala nahi duten udalerriek hartuko dute parte lantalde horietan, eta dagozkien teknikariak eta/edo politikariak izendatuko dituzte, helburuen eta lan-gaiaren arabera. Parte-hartzea, beraz, borondatezkoa izango da, baina horietan parte hartzeko konpromisoa hartuko da, lantalde bakoitza eratzten den lana amaitu arte.

16. artikulua.— Funtzionamendu-araubidea

1. Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Lurralde-sareko Batzarrak edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak proposatua, bere funtzionamendu-arauek sortu ahal izango ditu; arauok sareko batzarreko buruak onetsiko ditu, foru-agindu bidez, betiere araudi orokorrean xedatutakoarekin bat etorrira.
2. Foru Dekretu honetan ezarrita ez dagoenerako eta Batzarrak antolaketan ezartzen dituen berezitasunak gorabehera, Lurralde-sareko Batzarrak eta Kontseiluak, beren funtzionamenduari dagokienez, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. kapituluko arauak beteko dituzte.

AZKEN XEDAPENA**Azken xedapena.— Indarrean jartzea**

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2020ko abenduaren 22an.

Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua,
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ